BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4048

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 2koa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena; honen bidez, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantziazioan ekonomikoki parte-hartzeko irizpide orokorretako dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantziazioan ekonomikoki parte-hartzeko irizpide orokorretako dekretu-proiektua lantzeko prozedurari hasiera ematea onartu zen.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak eraginpean hartzen dituzten xedapen orokorrei entzunaldiaren izapidea aplikatuko zaie. Halaber, eta xedapenen izaerak aholkatzen duenean, jendaurrean jarriko dira.

Ildo horretan, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantziazioan ekonomikoki parte-hartzeko irizpide orokorretako dekretu-proiektua hogei eguneko epean jendaurrean jarriko da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Aurreko guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantziazioan ekonomikoki parte-hartzeko irizpide orokorretako dekretu-proiektua hogei eguneko epean jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantziazioan ekonomikoki parte-hartzeko irizpide orokorretako dekretu-proiektuaren edukia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (helbidea: Donostia-San Sebastián kalea, 1, Gasteiz), Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.net), Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren atarian (www.gizartelan.ejgv.euskadi.net) eta Irekiaren atarian (www.irekia.euskadi.net) egongo da eskuragarri.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 2a.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria,
IÑAKI MÚGICA FLORES.